

# NOMADAK

PARAISO ANTZERKIA



**DOSIER PEDAGOGIKOA**



# ANTZOKIRAKO GONBIDAPENA

Gutun misterioitsu bat heldu da gelara, eta haurren jakin-mina piztu da. Gutun-azal handi batean dago, eta lurraren eta paperaren usaina du. Itxita dago, eta bi emakume ezezagunek bidali dute: Sakak eta Tamanek. Baina, zer sorpresa du barruan?

Ireki eta letraz eta irudiz beteriko gutun bat aurkituko dugu; Sakaren eta Tamanen antzokirako gonbidapen bat da. Beren istorioa kontatu nahi digute, beti leku batetik bestera bidaiari. Ikuskizuna "NOMADAK" deitzen da.



Kaixo.

Saka eta Tamán gara, bi emakume bidaiari. Leku batetik bestera goaz, mundua ezagutzen eta bizitzeko eta istorioak irudikatzeko tokiak eraikitzen. Gaur hemen gaude, bihar beste nonbaiten... Egun batzuk barru zure hirira helduko gara. Ezagutu nahi zaituztegu eta gure istorioa oparitu: **NOMADAK**. Ikastolatik irten eta antzokirako bidea bilatzen duten bidaiariak/nomadak izan nahi al duzue zuek ere?

Emozioz beteriko lurralde berri horretan ikusiko dugu elkar.

Ez hutsik egin!

Muxu handi bat,






# NOMADAK IKUSKIZUNA

Hiru eta bost urte bitarteko haurrak espazioarekin eta denborarekin harremanetan nola jartzen diren galdetzen genion geure buruari. Horrela, Matematikaren, Geometriaren, Arkitekturaren, eta abarren oinarriekin egin genuen topo. Abentura horri MAUSHAUS arkitektura lantegia batu zitzaion, eta batera istorio hau eraikitzen hasi ginen.

Mundua ezagutzeke dugun esparru zabala da. Bertan, bi emakume nomada toki batetik bestera ibiltzen dira, maitekiro babesten eta zaintzen duten arrautza bitxi bat eskuan.

Egun batean, antolaketarik gabeko leku arraro eta kaotiko batean gelditzen dira. Hasieran, harritzen dira eta beren burua defendatzeko jarrera hartzen dute, baina, ostean, jakin-mina sortzen zaie.

Leku horrek nola funtzionatzen duen ezagutzea da erronka. Guztiz ezezaguna da; horregatik, materialak probatzen hasten dira eta antolatu egiten dituzte, denboraldi batez bizitzeko esparru bat sortzeko: tipi bat, etxe bat, horma bat, biribil bat... Bitartean, arrautzaren barneko bizitzak taupaka darrai. Denbora amaitutakoan, emakumeek beren gauzak batu eta bideari ekiten diote. Maletan, eskarmentuari esker lortutako ezagutza daramate.



# OHIARTZUN ARTISTIKOAK GELAN

“NOMADAK” ikuskizunera joateak emozioak piztu ditu haurren zein irakasleengan. Egoera pribilegiatua da eta gelan sormena lantzea ahalbidetzen du.

Oro har, ikuskizunaren eraikitze-lanean oinarritzea proposatzen dizuegu, arkitektura-esperientzia sustatzeko.

## MUNDUKO ETXEAK

Proiektu honek umeengan arkitekturarekiko eta geometriarekiko interesa piztea du helburu. Ikasiko dute arkitektura egitea ez dela soilik eraikinak altxatzea; amestea, arakatzea, pentsatzea, irudikatzea, aztertzea, marraztea. etab. da, baina baita kalkuluak egitea, neurtzea, adieraztea eta eraikitzea ere. Lehenik eta behin, gure etxeei buruz eta munduko beste tokietako umeen etxeei buruz zer dakigun galdetuko diegu geure buruei.

Hurrek dakitena baliatuko dugu gelan horma-irudi handia sortzeko. Ostean, gure bideari jarraituko diogu, zer ezagutu eta ikertu nahi dugun pentsatuz:

Etxeen koloreak.

Eraikitze-materialak.

Etxeak agertzen diren ipuinak. Hainbat etxeren izenak.



## BEHAKETA-FASEA

Hasteko, senideei laguntza eska diezaiekegu. Beren laguntzaz askotariko materialak lortuko ditugu, eta horiek gelan eta ikastolan ditugun osagarri izango dira: ipuin herrikoiak, irudidun albumak, etxeei buruzko liburuak, Internetetik ateratako irudiak, ordenagailurako jokoak, filmak DVDan, aldizkarietako katalogoak zein panpina-etxeak.





## ERAIKITZEA

Umeekin batera, Clementine Sourdais-en “Las casas del mundo” liburua/albuma irakurtzera gonbidatzen zaituztegu. Liburu horretan munduko hainbat tokitako etxeak aurkezten dira, esaterako: Errusia, Senegal, Mongolia, Groenlandia, Peru eta Espainia; eta etxe horien materialak ere azaltzen dira, hala nola: egurra, buztina, ehuna eta izotza.

Etxe bakoitza tokiko ume batek aurkezten du.

Hala, une batez, arkitekto izango gara, eta eraikitzeko teknika desbendinak aztertuko ditugu:



Tipi bat




Iglu bat



Gaztelu bat



Etxe-orratz bat



## BARNE-EGITURA ETA KOLOREA

Umeak bakarkako lana egitera gonbidatuko ditugu. Gure etxea eta hango elementuak marraztuko ditugu, eta, horri eskez, zenbakiak, eraikitze-teknikak eta etxearen atalak ezagutuko ditugu. Kolorea Van Gogh-en “Etxe horia” koadroaren kopien bidez landu dezakegu.





## DRAMATIZAZIOA

Etxeei buruzko abestiak, poesiak eta asmakizunak ikasiko ditugu



“Hiru txerritxoak” ipuina antzeztuko dugu, umek sortutako txotxongilo batzuekin



## ONDORIOAK

Ikerketa-lanari esker, munduko etxeei buruzko gauza ugari ezagutu ditugu eta gure arkitekto- gaitasuna deskubritu dugu.

*Kolore askotako etxeak daude.*

*Indiarren etxeei tipi deritze, eta animalia-larraz eta makilaz eginak daude.*

*Iglua inuitek ehizara doazenean eraikitzen duten etxea da. Izotzez eginik daude.*

*Txinako etxeei pagoda deritze.*

*Etxe-orratzak oso eraikin garaiak dira. New York-en etxe-orratz franko daude.*

*Gazteluetan erregeak eta printzesak bizi ziren, eta harriz egiten ziren.*

Ikasitakoa liburu pertsonal batean bil dezakegu. Gero, etxera eraman eta abentura senideei erakuts diezaiokegu.





## AMAIERA POETIKOA

Bukatzeko, M<sup>a</sup> José Olavarría eta Gemma Capdevila idazleen “Hay Casas” liburua gelan irakurtzea proposatzen dizuegu. Liburu horrek hamaika aukera, hamaika ikuspegi, hamaika poema eskaintzen ditu; etxeak beste. Hala, itxuraz gaindi, etxeetan benetan garrantzia duena agerian uzten du.

“Oraindik taupadak dituzten etxe abandonatuak daude. Bihotz handia duten etxe txikiak daude. Etxe batzuk kolorez beterik daude; beste batzuek, ordea, emozio hilak dituzte” [itzulpena]. Pertsonekin paralelismoa ezar dezakegu berehala, zalantzarik gabe, etxe horiek pertsonen isla baitira.

